

II

LATEĪRI (Lege-eĭi, aginte-eĭi)

(Erderazko ESTADO)

7. Lateĭia (au da: Lege-eĭia, edo erderazko *Estadoa*) ¿zer da?—Aginte beraren azpian dagon gizadia. Batzutan, agintaritza berari ere esan oi-diote.

8. ¿Gauza bera al-dira Sorteĭi (edo *Nazio*) ta Lateĭi (edo *Estadoa*)?—Ez, iñola ere. Sorteĭia berez etoĭia dezu, Jainkoak sortua; Lateĭia ez da berezko, baizik gizonek egiña. Abenda edo giza-kasta bizi dan artean, bizi da Sorteĭi edo Nazioa ere. Lateĭiak, beĭiz, eĭegeen eta eĭi-menderatzaĭeen naikeriz zutitzen eta ondatzen dira. Sorteĭiak odolez ta izkuntzez lotzen du gizona; Lateĭi edo Estadoak, beĭiz, agintearen bi-dez.

9. ¿Agerbidez azalduko al-zenidake ori?—Bai, enetxoa. Jaĭi itzazu alde batera elkaĭen anai bi; bestera, nagusi beraren bizpairu moĭoi. Anaion arteko ta moĭoion arteko lokaĭiak ¿berdiñak al-dira?... Ez: anaiek Senidetasuna dute lokaĭi; moĭoiek, beĭiz, nagusi beraren mendeko izatea. Oiek aņean dira, bada, ezberdin, Sorteĭi ta Lateĭi ere.

10. Beraz ¿Sorteĭi edo Nazio bakaĭa zatitu al-